



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSARAKO OHARRA

BIZKAI AK DABORDUKO BADAUKAZ “DATOZAN URTEETARAKO BEHARKO DIRAN” ADINEKOENTZAKO EGOITZAK

- **Sergio Murillo Gizarte Ekintzako foru diputatua Batzar Nagusien aurrera etorri da, 2016-2019 epealdiko Bizkaiko gizarte arloko zerbitzuen eta prestazinoen hedapenaren balantzea egiteko, eta GUFEk deitu dituan erizaintzako azkenengo oposizioen egungo egoeraren barri emoteko.**
- **Aldundiak “urritasuna daukien personentzako ehun plaza” sortuko ditu egoitzatan.**

(Bilbon, 2020ko garagarrilaren 24an). Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko gizarte arloko zerbitzuen eta prestazinoen hedapenaren ganeko informazioa emon dau gaur Bizkaiko Batzarren aurrean, toki erakundeek 2016an adostu eben guneen araberrako banaketan oinarrituta, eta EAeko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoak eta Zerbitzuen Mapak ezarritako erespide orokorrak kontuan izanda. Sergio Murillo Gizarte Ekintzako foru diputatua izan da plana une honetan zein egoeratan dagon azaldu dauena, 2019. urtearen bukaerako datuakaz eta, azpimarratu dauenez, daborduko, Bizkaiak badaukaz “hurrengo urteetarako beharrezkoak izango diran” adinekoentzako egoitzako azpiegiturak.

Murilloren eretziz, Bizkaiak, “zerbitzu guztietan”, lurraldeko zerbitzuen eta prestazinoen hedapenean egin dau aurrera. “Eta modu bikainean egin dogu testuinguru soziodemografikoak gure lurraldeari behar barriak ezarri deutzazan zerbitzuetan”, gehitu dau. Hori dala eta, Mapak Bizkairako egiten dituan aurreikuspenakaz bat etorrita, “zerbitzu eta prestazino askotan, sarea eta erabiltzaileen bolumena proiektutakoa baino askoz handiagoa da”. “Geure burua goratu gura barik”, “erantzunaren %95 eregita dagola” esan dau.

Egoitzei jagokenez, Bizkaiak 10.745 plaza ditu baimenduta 155 zentzoko sarean. 2019. urtearen bukaeran, 7.162 personak Aldundiaren finantziazioa jasoten eben euren egoitzako plazarako. Orain urte bi baino 784 gehiago dira. %12aren igoera hori bat dator adinez gora doazan biztanleen hazkundeagaz. “Lurraldeko orekea bermatzeko”, Aldundiak Getxoko belaunaldi arteko zentroa proiektatu dau. Udalerrian egoitzarako dagozan beharrak beteko ditu eta, ganera, etorkizuneko egoitza ereduia izango dau, belaunaldien arteko bizikidetzan oinarrituta eta komunidadera zabalik. Ganera, esan dauenez, 2020ko lehenengo seihilekoan “arnasa” programea, atsedena hartu daben “134 personakaz” itxi da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Mendekotasun egoeran dagozan adinekoei jagokenez, 1.900 persona baino gehiagok jasoten dabe eguneko arretea eguneko 50 zentroek eta norberaren autonomia bultzatzeko 3 zentroek osatzen daberen sarean, euren etxean zainduta dagozan bitartean. Ildo horretan teknologia sartuta sakontzeko, Aldundiak EtxeTIC ereduak proiektatu dau Bilboko Etxaniz zentroan. Bertan, mendekotasun egoeran dagozan personei emoten jaken eguneko zentroaren arretari (25 plaza), zainketak etxean jasoten dituen eta zentroaren inguruan bizi diran persona askori emoten jaken arretea gehituko jake. Zentrotik urruneko eta lekuan-lekuko arretea emongo jake, euren ongizatea hobetzeko.

Urritasunaren arloan, Foru Aldundiak, egoitzako baliabideen eskatzailearen profileen izandako aldaketa garrantzitsutik sortutako behar barriak hauteman ditu. Gaur egun, lurraldeak 1.314 plaza ditu lan-hastapeneko zentroetan, eguneko arretako 1.117 plaza eta egoitzetako 1.196 plaza, urritasuna daukien personentzat, eta, horreei, buruko gaixotasuna daukien personentzako egoitzetako beste 255 plaza gehitu behar jakez. Holan, Aldundiak urritasuna daukien personentzako egoitzako ehun plaza sortuko ditu, zentro txikietan, eta horreekaz osatuta geratuko da Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Mapa. Baliabide horreek Bilboko Etxaniz zentroan gauzatuko dan EtxeTIC proiektuari eta belaunaldien arteko zentroari (Getxo) gehituko jakez. Zerbitzu barritzaile horreei esker, sistema hobeto egokitu ahal izango da mendekotasun egoeran dagozan adinekoren beharretara.

BATZARRETAKO TALDEAK

Oposizionoko taldeen eretziz, oraindino “egiteko behar asko falta da”. Eduardo Andradek (PP), adibidez, “ahalegin handiagoa” eskatu dau, adinekoek zein egoitzatan bizi gura daberen erabagi ahal dairen, eta “arnasa” programea indartzeko, izan be, “134 persona” ez dira asko. “Zeozer ez dabil ondo”, esan dau.

Eneritz de Madariagak (Elkarrekin Bizkaia) esan dauenez, zifrek erakusten dabe “2011n baino askoz be hobeto gagozala, baina “estaldurea zenbaki hotzak baino askoz garrantzitsuagoa da, kalidadea kantidadea baino garrantzitsuagoa”. Bere berbetan, plan estrategikoaren “zuloak” urritasuna eta buruko gaixotasun kronikoa daukien personentzako zerbitzuetan agertzen dira, eta baita espazio sozio-sanitarioan be. Eguneko zentroetako eta egoitzetako zerbitzuen kudeaketa ereduak “ez ditu emaitza onak emoten”, esku pribaduetan dagozanetan, batez be. Administrazio guztiek gizarte zerbitzuen zorroaren hedapenaren inguruan erakusten daberen “gardentasun faltea” be kritikau dau. “Ondo egongo litzateke” Bizkaia bere plan estrategikoa eukitea, “norantz goazan ikusteko”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

EH Bilduk, bere aldetik, balantzea “berandu” heldu dala kritikau dau, garagarrilaren bukaeran, eta Plan Estrategikoan planteatuko helburuetako bat faltan bota dau txostenean, Euskadiko zerbitzuen “batez besteko estalduraren %85era” ailegetea, adibidez. Arantza Urkaregi batzordekideak, udalerrien artean “alde handiak dagozala” esan dau, “danak” zerbitzu berberakaz gozetako eskubidea daukien arren. Aldundiak covid-19aren osasun krisian emon dauen erantzuna be kritikau dau. Bere berbetan, “kezkatzeko modukoa” da zerbitzuagaz lotutako prestazinoan gora egitea, eta sektoreagaz berbetako eskatu dau, sistemaren beharrak ezagutzeko, garrantzitsuena “arretean zelan emoten dan” dalako, eta “ez hainbeste zenbat emoten dan”.

Foru Gobernua eusten daben Batzarretako taldeek Gizarte Zerbitzuen Legea eta Plan Estrategikoa onartzeak eskatu dauen esfortzu “garrantzitsua” balioztatu dabe, izan be, Euskadiko egitura instituzional guztiagaz adostu da. Amaia Rebollok (PSE-EE), “adinekoen zainketetan egozan aurreikuspenak beteten ari dirala” eta “prestazinoak hobetu egin dirala” azpimarratu dau, “inor baliabide barik geratu ez daiten”. Modu berean, Idoia Inorizak (EAJ-PNV) erakundeen arteko adostasuna, “inor atzean itzi barik” zerbitzu on bat jasoteko Eskubide subjektiboa onetsi izana, eta lurraldeko gizarte zerbitzuen “moldakortasuna” azpimarratu ditu.

GELDITU EGIN DA GUFeko 2016-2017 LAN ESKAINTZA PUBLIKOA

Gizarte Urgazpeneko Foru Erakundearen (GUFeko) 2016ko eta 2017ko Lan Eskaintza Publikoko erizaintzako 26 plaza hornitzeko azterketak gainditu ebazan hautagaietako batek, Aldundiak orain lau urte hasitako oposizino hori ebazteko eskatu eban joan dan garagarrilaren 3an, Bizkaiko Batzar Nagusietan egin eban agerraldian. Prozesua geldik dago, oraindino ebatzi barik dagozan epaibideetako errekurso bi dirala eta. Oposizinoan taldeek gai horren ganean galdetu deusie Aldundiari, aurkeztutako errekursoen aurrean GUFeko hartu behar dauen jarreraren ganean, hain zuzen be.

Aldundiak esan dauenez, gai hori ez dago ebatzita, GUFeko ez daukalako oraindino, ebazpena proponidutako “erabateko autonomia funtzionala” daukan epaitegiaren proposamen formalik. Murillok esan dauenez, Aldundiak “kategoria horretan lantaldea ahalik eta arinen egonkortzea gura dau, eta gehiago oraindino covid-19 testuinguru honetan”.

Oposizinoa gainditu eban personak, epailetako baten aurrean GUFeko errekursoa jartea eskatu eban, gainditu eben personek 2019an amaitu zan oposizinoan irabazitako plazak eskuratu ahal izateko. Murillok esan dauenez, “errekursoa jartea ez da konponbide egokia”, konkurtsoaren oinarriak eurak “arriskuan” jarriko litzatekezalako. Egia da “gura gendua bano gehiago ari



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

dala luzatzen, baina epaitegiaren autonomia errespetatu behar dogu” eta,
“segurtasun juridikoa dala eta”, epaitegiak ebazpena emon arte itxoin.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

BIZKAIA TIENE LAS RESIDENCIAS PARA PERSONAS MAYORES “NECESARIAS PARA LOS PRÓXIMOS AÑOS”

- **El diputado foral de Acción Social, Sergio Murillo, comparece en las Juntas Generales para hacer un balance del despliegue de los servicios y prestaciones sociales en Bizkaia durante el periodo 2016-2019 y para dar cuenta del estado actual de las últimas oposiciones de enfermería convocadas por el IFAS.**
- **La Diputación va a crear “un centenar de plazas residenciales para personas con discapacidad”.**

(Bilbao, a 24 de julio de 2020). La Diputación foral de Bizkaia ha informado hoy a la Cámara vizcaína del despliegue de los servicios y prestaciones sociales en Bizkaia, en base a la zonificación acordada con las entidades locales en 2016 y teniendo en cuenta los criterios generales establecidos en el Plan Estratégico y el Mapa de Servicios Sociales de la CAPV. El diputado foral de Acción Social, Sergio Murillo ha sido el encargado de explicar el momento del plan con datos a cierre de 2019 y ha destacado que Bizkaia tiene ya las infraestructuras residenciales para personas mayores “necesarias para los próximos años”.

A juicio de Murillo, Bizkaia ha avanzado en “todos los servicios” en el despliegue de servicios y prestaciones en el territorio. “Y lo hemos hecho extraordinariamente en aquellos servicios en los que el contexto sociodemográfico ha impuesto nuevas necesidades a nuestro territorio”, ha afirmado. De ahí que, de acuerdo a las previsiones que el Mapa realiza para Bizkaia, “en muchos de los servicios y prestaciones, la red y el volumen de personas usuarias es muy superior a lo proyectado”. “Sin querer ser autocomplaciente”, ha dicho que “el 95% de la respuesta está construida”.

En relación a los centros residenciales, Bizkaia cuenta con 10.745 plazas autorizadas en una red de 155 centros. A cierre de 2019, 7.162 personas recibían financiación foral para su plaza residencial. Son 784 más que hace dos años. Este incremento de un 12% coincide con el crecimiento de la población avanzada. “Para garantizar el equilibrio territorial”, la Diputación ha proyectado el centro intergeneracional de Getxo, que vendrá a cubrir una necesidad de plazas residenciales en el municipio, y además con un modelo de centro de futuro, desde la convivencia intergeneracional y abierto a la comunidad. Además, se ha referido a que el primer semestre de 2020 el programa “respiro” se ha cerrado con “134 personas” con descanso.



En lo referente al ámbito de las personas mayores en situación de dependencia, más de 1.900 personas son beneficiarias de atención diurna en la red de 50 centros de día y 3 centros de promoción de la autonomía personal, al tiempo que permanecen cuidados en su hogar. Para ahondar en esa línea incorporando tecnología, la Diputación ha proyectado el modelo EtxeTIC en el centro Etxaniz (Bilbao) que combinará la atención propia de un centro de día a personas en situación de dependencia (25 plazas) con la atención a un volumen muy importante de personas que reciben cuidados en el hogar y que residen alrededor del centro, desde el que se les atenderá de forma remota y presencial para mejorar su bienestar.

En el ámbito de la discapacidad, la Diputación Foral ha detectado nuevas necesidades derivadas de un cambio significativo en el perfil de la persona solicitante de recursos residenciales. En la actualidad el territorio cuenta con 1.314 plazas en centros ocupacionales, 1.117 plazas de atención diurna y 1.196 plazas residenciales para personas con discapacidad a las que se suman otras 255 plazas residenciales para personas con enfermedad mental. En este sentido, la Diputación va a crear un centenar de plazas residenciales para personas con discapacidad repartidas en centros de reducida dimensión, con las que completará el Mapa de Servicios Sociales de Bizkaia. Estos recursos vendrán a sumarse al proyecto EtxeTIC en el centro Etxaniz (Bilbao) y al centro intergeneracional (Getxo), servicios innovadores que permitirán ajustarse mejor a las necesidades de las personas mayores en situación de dependencia.

GRUPOS JUNTEROS

Para los grupos junteros de la oposición, queda aún “mucho trabajo por hacer”. Eduardo Andrade (PP), por ejemplo, ha pedido “mayor esfuerzo” para que las personas mayores puedan decidir en qué residencia quieren vivir y para que se refuerce el programa respiro, ya que “134 personas” adheridas parecen “pocas”. “Algo falla”, ha dicho.

Eneritz de Madariaga (Elkarrekin Bizkaia) ha dicho que las cifras reflejan que “estamos mucho mejor de lo que estábamos en 2011”, pero es “más importante la cobertura que los números fríos, la calidad que la cantidad”. Para ella, los “agujeros” del plan estratégico se manifiestan en la discapacidad y en los servicios para personas con enfermedad mental crónica, así como en el espacio socio-sanitario. El modelo de gestión de los servicios en centros de días y residencias “no está dando buenos resultados”, sobre todo, la que recae en manos de la gestión privada. Ha criticado también la “falta de transparencia” por parte de todas las administraciones sobre el despliegue de la cartera de los



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

servicios sociales. “Estaría bien” que Bizkaia contase con su propio plan estratégico, “para vislumbrar hacia dónde vamos”.

EH Bildu, por su parte, ha criticado que el balance llega “tarde”, a finales de julio, y ha echado en falta en dicho informe uno de los objetivos planteados en el Plan Estratégico como era llegar al “85% de la cobertura media” de los servicios en el País Vasco. Su apoderada Arantza Urkaregi ha asegurado que existen “diferencias grandes” entre municipios, ya que “todos” tienen derecho a disfrutar de los mismos servicios. Ha criticado también la respuesta foral ofrecida en la crisis sanitaria de la covid-19. Para ella, es “preocupante” que se crezca en la prestación vinculada al servicio y ha pedido que se hable con el sector para conocer las necesidades del sistema, porque lo fundamental es “cómo se atiende y no tanto cuánto”.

Los grupos junteros que sustentan al Gobierno foral han puesto en valor el esfuerzo “notable” que ha supuesto la aprobación de la Ley de servicios sociales y el Plan Estratégico que ha sido consensuado con todo el entramado institucional de Euskadi. Amaia Rebollo (PSE-EE) ha puesto el foco en que “se están cumpliendo las previsiones en los cuidados de las personas mayores” y “se han mejorado las prestaciones”, para que “nadie se quede sin recurso”. De la misma forma, Idoia Inoriza (PNV) ha destacado ese consenso interinstitucional, la aprobación del Derecho subjetivo a recibir un buen servicio “sin dejar a nadie atrás” y la “adaptabilidad” de los servicios sociales del territorio.

PARALIZADA LA OPE DEL IFAS 2016-2017

Uno de los aspirantes que aprobó los exámenes del proceso de provisión de 26 plazas de enfermería en la OPE 2016 y 2017 del Instituto Foral de Asistencia Social (IFAS), pidió el 3 de julio en una comparecencia en las Juntas Generales de Bizkaia, que la Diputación resolviera esta oposición que comenzó hace cuatro años, y que está paralizada a consecuencia de dos recursos judiciales sin resolver. Los grupos junteros de la oposición han preguntado hoy a la Diputación por este asunto y, en concreto, por la postura que va a adoptar el IFAS frente a los recursos presentados.

La Diputación ha dicho que no se ha resuelto este asunto, porque el IFAS no tiene aún una propuesta formal del tribunal que tiene “plena autonomía funcional” para proponer una resolución. Murillo ha explicado que a la Diputación le “gustaría cuanto antes estabilizar la plantilla en esta categoría y más en este contexto de covid-19”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

El opositor pidió que el IFAS recurriera una de las sentencias para que las personas que aprobaron puedan acceder a las plazas ganadas en la oposición que culminó en 2019. Murillo ha dicho que “no merece la pena recurrir” porque se pondrían “en riesgo” las propias bases del concurso. Efectivamente, “se alarga más de lo deseable, pero vamos a respetar la autonomía del tribunal” y esperar “por seguridad jurídica” a que resuelvan los tribunales.